

## **I. ERANSKINA: TESTUINGURU TEORIKOA ETA ONDORIOAK**

Eskuratu ditugu ezagutzak; egin dugu gogoeta arriskuei eta prebentzio-beharrei buruz; ikusi dugu nolako egoera makurrak eragin daitezkeen teknologia berriak oker eta gaiztorako erabiliz gero; bada, orain, teknologia horiek arduraz erabiltzeko konpromisoa hartu behar dugu; garrantzitsua da.

### **ONDORIOAK**

Jarduera honen bidez, bi gauza lortuko ditugu: ikasleek hobeto barneratuko dituzte erakutsi dizkiegun ezagutzak; eta, gainera, egiten dituzten lanen bidez, gainerako ikasleei hobeto erakutsiko dizkiete programa garatu ahala aztertu ditugun alderdirik garrantzitsuenak. Izan ere, mezua lagunengandik datorrenean, arreta handiagoa jarri ohi dute, eta hobeto ikasi ohi dute zer egin behar duten arriskurik gabe nabigatzeko.